

Maribel Vaquero

Senaturako Gipuzkoako hautagaia / Candidata al Senado por Gipuzkoa
Vitoria-Gasteiz 2019-10-31

Balioko duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena.
El único discurso válido será el pronunciado por la oradora en el acto.

Duela sei hilabete eskas, hemen ginen, apirilak 28ko Hauteskunde kanpainari hasiera ematen, eta berriro Estatuko Gorteetarako hauteskunde batzuen atarian gaude, sei hilabete "funtzioetan" izan gaituzte, PSOEn kalkulua elektoralek nahi izan duten arte. Honela, hauteskundeetara goaz berriro; ez tokatzen delako, alderdi estataltan, inkompetentziak eta arduragabekeriak bultzatuta baizik.

Eta sei hilabete pasa eta gero, sozialistentzako, Sanchezek gure etxeetara bidalitako eskutitzean esaten duen bezala, 'Orain da unea'. Nonbait, apirilaren 28koa ez zen unea, ez zen sozialistentzat lanerako, politikarako unea. Horregatik, adarjotze handi bat da Sanchezek etxeetara botoekin bidalitako eskutitza, non, 'Orain da unea' esaten den. Orain, azaroaren 10ean, politikarako eta konpromisoa hartzeko unea da Sanchez jauna? Apirilak 28koa zer izan zen orduan? Apirileko Kanpainan, eskubiari aurre egiteko botoa eskatzen zuten sozialistek, eta nahiko boto lortu zuten bide hori jorratzeko; nahiko boto izan zituzten gehiengo progresista hori errealitate bihurtzeko, baina orduan ez zen unea.

Y la gente está enfadada, con razón. Enfadada y asqueada cuando se le dice que tras la incompetencia y falta de responsabilidad de aquellos que pudieron gobernar y no supieron, o no quisieron, que Ahora, sí, que Ahora es el momento. No se puede entender el ejercicio de la política por momentos, ahora me interesa y ahora no. Cuando un partido político, se presenta a las elecciones y pide el voto, asume la confianza y la responsabilidad que los votantes han depositado en él, es ahora y siempre, porque el compromiso político no entiende de cálculos electorales ni de intereses personales. Por eso, el 10 de noviembre tenemos que convertir ese desánimo, ese enfado en contestación activa, en voto, en voto a aquellos que sí asumimos un compromiso activo con nuestro pueblo. En voto al PNV.

Erantzun aktiboa eman dezagun, euskal herritarren botoek, Euskadiren interesen eta beharren aldekoa izan behar dute. Azaroaren 10ean jokoan dagoena Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan nork ordezkatzeko gaituen baita. Nire atzean Euzko Alderdi Jeltzalearen hautagaiak ditut, Madrilen euskal taldea osatzen dutenak. Talde berdina aurkezten gara, programa eta lema berdinarekin. Hemen! Hemen Euskadin politika egiteko beste modu bat dugulako. Euskadiren interesen alde eta defentsan Estatuaren aurrean irmo arituko den taldea. Politikaren ariketa zintzotasunez eta errespetuz egingo duen taldea. Erakunde guztietan egiten dugun modura, Udaletan, Aldundietan, Batzar Nagusietan, Legebiltzarrean zein Eusko Jaurlaritzan.

Konpromisoa hartuta goaz, kasu honetan Madrileren. Guretzako ardurak eta ohoreak handiak dira, eta arduraz hartzen dugun egitekoa da. Garai zailak bizi ditugu, eta datoz. Ezegonkortasun politikoa handia, eta aldiz, erronka politiko zein ekonomikoak handiak dira. Horren aurrean, dugunaren eta garenaren defentsa egiteko talde indartsu bat behar dugu Madrilen. Orain arte bezala, modu eraginkorrean eta fundamentuz lan egingo duena, herri honen borondatea errespetatu eta errespetaraziko duena. Zintzotasunez. Inboluzio demokratikoaren aurrean tinko arituko dena. Horretarako Euskadin badugu alternatiba: Hemen! EAJ! Hemen! PNV!